

edeñe, sapsi mila ta bosteun toneladakua urten zanetik. Ontzi au utsik juan zan, uti edo arrozen bila, andik Italia'ra-edo erua-teko.

¿Bai-dakixube zenbat artuko daun (edo artu daun, batzuk aurretik artzen dabe-ta) uti zori-joneko ori Europa'ra ekarteko? Iru miloe peseta ta geyago.

Ontzi oñek, Bilbao'ko edefenatarikua ixan afen, ezaban len balijo diru ofen erdija bez.

Beraz, Cochinchina'ko utija (arroza) dubarik emonda be, saldu biar da gero, dirurik ez galtzeko, erial bifan-edo kilua.

Gero, esaten dogu jatekoen-saneurija gora ta gora daua. ¿Zta juango, ba!

ITXASTORI.

Zer egiten duban

Itse. — Miren neuk be *Motriko'ko Ulazia'ren txokolatua* artzen det orain.

Miren. — ¿Eta?

Itse. — Berdin-gabia da edefetasunian eta ezte besterik artzen.

¿Done ala gudari?

Eguzki odoltsuba mendijen ostian
dii, eta ilazkia dargi odel-ostian;
ilazki zurbila,
argijaren bila
gabaren aurkeko
beti agertzen dana, euzkia il daneko.

Bere jauregijan dago zaurituba.
Sartzen da leyotik azken-izpituba
gelea argituten.
Berak irakurten
deunen edestija
dago, atsein andija yakon idaztija.

Noxian-bein adi, begijak itxia
oldozten dirudi. Orman eskegia
ezpata luzia
dago, irabazlia
aizkidien aldez,
arerijo, baita anayaren kaldez.

¿Zetzaz oldozten da euzko gudarija?
Bein eta birritan deunen edestija
bai-dau irakuri,
eta eska-iturri
ixan da berentzat
ta etsi dan zintzoro eredu andijentzat.

¿Ta bere bijotzan gudaka gogofa?
¿Donien bixitza bai-da maitekoa,
donoki-bidia!
¿Ezpata luzia
aintzaren gezari
bai-dal... ¿Zer autetsi? ¿Done edo gudari?

Eguzki odoltsuba mendijen ostian
il da, ta ilazkia dago ixar-artian.
Gudari euzkotara
deun-edesi zara
itxi ta bai-daki
ointxe zer eim; ¿Done ixango da ilaki!

AIZKIBEL'DAR BINGEN.

Espelelik (kartzelelik) urten dan gixoa bai bere latari-aldeziarijagana (abogadu-defensori agana) dia, alai ta pozik.

— Zeu ixan zara, ben-benetan, nire aita, zeuk azkatu nozu-la.

— Eta ori egilia ezta ixan gauza eriza.

— Bai, bai-dakit ori. Ni aleginduko naz dautzudan zora kifututeko, biro-txuria ixan afen... Baña ezta ardura. Lenen-lenen ostuko dnodana zuretzako ixango da.

EUZKELDUN NESKATIĀI

Aizkidetasuna

Aizkidetasuna, bixituzeren gozua da; beti orlegi dagozan zuzatzaen antza dauko.

Zoritxafak jo daun gixasemia, zorunduna ixango da bere bidian aizkide on bat aufkitzen ba-dau.

Aizkidetasuna, goguk batzeko lokirik bigunena da: berak geure poza gefu ta geure atsekabiak arinduten dauz. Eta berak egun ifunak poztu ta egun alyaan zoruna andijagotuten dauz.

Neskail mafekorak, bigunak eta onak beti ixango dira bere aizkidiak mate ta bilatubak. Baña, orde, afoputz, gogof ta gaiztuakandik justijok aldendiko dira. Noberen buru lafegi mate-ixatia, aizkidetasunaren arerijorik andijena da.

Bijotzaen aftu-emonetan, ezer emoten eztaunak ezer eztaun artzen. Emoteko euki biaf-da, ta aizkidetasuna ezta gogo txir-uentzat egiña. Neskail ariñai, beti aizkidien kaltez dabilena eztauzube zuben matasuna emongo. Aizkide benetakuak, ba, euki gura ba-dozube, benak eta mafekorak ixan biaf-zarie. Zuben aizkidentzako eredu onak ixan biaf-zarie.

Aizkidien artian inartzi edo inbirijarik ezta ixan biar. Onu edo kontsejubak agiraka-bakuak ixan biaf dira; baña leusinga edo koiperirik ezta erabili biaf. Aizkidetasuna egiz irakutsi biaf-da ta ez zurikeriz.

Ekanun edo birtuterik eztagonien, benetako aizkidetasunik ezta ixaten. Ludi onetan aizkide baño zurikatzaile geyago ixaten da. Zurikatzaile edo guzuf-aizkide oñek zori-jonien aguf-egingo dautzube, baña zoritxarñan laga egin. Labankeri-zaliak ba-gara, ezkara egizko aizkidetesunaren duñak ixango: geure buruba lafegi mate-dogu ta geure bijotzan eztago bestienzako lekurik. Orduban lagun zinduk geugandik aldenduten dira ta gaiztuen atzamařetan izten gabez.

Ezin dautsegu geure aizkidiak utz-utzak ixan dafezala eskatu. Utz-utza Jaun-goikua bakafik da, ta beste gustijak gifiña gaiztuak doguz. Geure aizkidiak zorigaiztodunak ba-dira, euren eruz ba-da be, geuk gotasetu ta adoretu biaf-doguz ta geure mata-suna erakutsi.

Gustijok gura-doguz benetako aizkidiak eukiña, ta onetari-kuak bakanak eta ufijak dirala esaten dogu. Baña lafegi arduratzen gara eurok bilatzen eta gixijegi euren artian onenak autesten eta euren duñak geure burubak egiten.

ETXAKIN.

AZKE

Gariña-26'gafenan espetxelik (kartzelelik) urten zan geure aizkidia dan Elezkanon' tar Toma, Deusto'tar abertzaile zindua.

Aberijaren sendi mañagandik aldenduta gogua-sendo jasan dau azkatasun-eza.

Oin, geure artian dogula, beretzako da geure aguf-agufa.

BELEA

Gaxo zan beleak amari zesayon: «Ama, eskatu Goiko Jau-nari ta ez negaf-egin». Baña amak erantzun ziyon esanaz: «goi-ko Jaunetarik znor kupituko da itzaz, ene ume ori? ¿Nori eske-ñitako okelelik ez dek ik ostu?»

Ipyak adirritzen du, bixit-aldiyan areyo asko dituztenak, eztefela biaf-aldiyan adizkiderik ařafitako.